ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 14koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, 2021eko martxoaren 5eko Ebazpenaren babesean, arte plastiko eta ikusizkoak, musika eta dantza 2021. urtean euskararen eremu geografikotik kanpo zabaltzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen deialdian **dantza** modalitatearen lehen seihilabeteko zuzkiduran diru gehikuntza egiten duena.

AURREKARIAK

1.- 2021eko martxoaren 18an argitaratu zen EHAAn 2021eko martxoaren 5eko Ebazpena, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, arte plastiko eta ikusizkoak, musika eta dantza 2021. urtean euskararen eremu geografikotik kanpo zabaltzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena.

2.- Deia egiten duen Ebazpenaren 3.2 artikuluak ezarritakoari jarraiki, modalitate baterako ezarritako diru-kopurua agortzen ez bada, beste modalitate bateko dirulaguntzen zenbatekoa handitu ahal izango da soberakin horren bitartez. Honetarako, EEIko zuzendariak ebazpena emango du.

Horregatik guztiagatik, aurkeztutako ebazpen-proposamena ikusita, eta deia egin zuen Ebazpenaren 13. artikuluak egokitu dizkidan betebeharren jardunean, hurrengo hau

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.-** Arte plastiko eta ikusizkoen modalitatean lehen sei-hilabeteko epean banatu gabe utzi den soberakinetik, 12.861,45€ko gehikuntza egitea Dantza modalitateko lehenengo sei-hilabeteko diru zuzkiduran, kopuru berria 40.361,45€an ezarriaz.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau prozedurako interesatu guztiei jakinaraztea eta, Eusko Jaurlaritzaren iragarki taula elektronikoan argitaratzea, denek jakin dezaten.

**Tercero.-** Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka interesatuek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

RESOLUCIÓN de 14 de julio de 2021, de la directora del Instituto Vasco Etxepare, por la que se incrementa la dotación destinada a la modalidad de **danza** para el primer semestre en la resolución de 5 de marzo de 2021 por la que se establece el procedimiento para la concesión de subvenciones para la difusión de las artes plásticas y visuales, la música y la danza en 2021 fuera del ámbito territorial del euskara.

ANTECEDENTES

1.- Con fecha de 18 de marzo de 2021 se publicó en el BOPV, la Resolución de 5 de marzo de 2021 de la directora del Instituto Vasco Etxepare, por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones para la difusión de las artes plásticas y visuales, la música y la danza en 2021 fuera del ámbito territorial del euskera.

2.- De conformidad con el artículo 3.2 de la Resolución de convocatoria, si no se agota la dotación destinada a una modalidad, se podrá utilizar el remanente para incrementar la dotación de otra modalidad. Para ello, será necesaria resolución de la directora del IVE.

En su virtud, y vista la Propuesta de Resolución presentada, y en el ejercicio de las funciones atribuidas por el artículo 13 de la Resolución de convocatoria

RESUELVO:

**Primero.-** Incrementar la cuantía destinada a la modalidad de danza para el periodo del primer semestre en 12.861,45€, utilizando para ello el remanente que ha quedado sin conceder en el primer periodo de la modalidad de Artes Plásticas y visuales, dejando la nueva cuantía en 40.361,45€.

**Segundo.-** Comunicar esta resolución a todos los interesados en el procedimiento y publicarla en el tablón electrónico de anuncios del Gobierno Vasco, para su general conocimiento.

**Tercero.-** Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Directora del Instituto Vasco Etxepare en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su publicación, o bien, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha Jurisdicción del tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir, asimismo, del

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T2YBX-FA3H
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** IRENE LARRAZA AIZPURUA | 2021/07/16 14:31:42

Donostian – San Sebastian, 2021eko uztailaren 14an

Irene Larraza Aizpurua

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria

día siguiente al de su publicación.

Donostia – San Sebastián, a 15 de julio de 2021.

Irene Larraza Aizpurua

Directora del Instituto Vasco Etxepare